

bidegileak



Mª Dolores Agirre (1903-1997)

Egilea:

LURDES AUZMENDI

Maria Dolores Agirre

Maria Dolores Agirre Aizpuru 1903ko ekainaren 8an jaio zen Errezilgo *Etxeberri* etxean. Aita, Pablo Agirre, errezil-darra zen; hiru seme eta alaba bat izan zituen lehenengo emaztearekin, besteak beste: Alfonso, pilotaria, oso gazterik Uruguayra joan zena fortuna bila. Maria Dolores beti oroitzen zen anaia agurtu zutenekoaz, anaia zaharrena joan zenean etxean negar asko egin omen zutelako; Jose Ramon «maiorazgoa», 30 urtez Errezilgo alkatea izan zena, eta Juan Garmendia etnologoak esaten duenez, Jose Ramon Errezilgo historiaren artxibo bizi bat zena; eta Tomas, «Barrensorro» goitizena hartuta poeta izan zena; Bilboko Euskal Eskolaren zuzendaria izanik, 36ko gerraren ondo-



Maria Dolores Agirre (1903-1997)

ren deserriraturik Sevillara joan behar izan zuen, eta hori galera handia izan zen euskal letrentzat.

Pablo Agirre lau ume txikirekin alargun geratu ondoren, berriz ezkondu egin zen, eta Aizarnako Manuela Aizpuru emaztearekin izan zuen M^a Dolores alaba, etxeko bosgarren umea.

M^a Doloresek sei urtetik hamabira bitartean herriko eskolan ikasi zuen eta gero, ohikoa zen bezala, etxean geratu zen.



Errezil, Maria Doloresen jaioterria. Eliza aurreko etxe handi horretan, *Etxeberri* baserrian jaio eta bertan bizi izan zen 14 urte arte

Hamalau urte bete zituenean irten zen Errezildik Donostiara maistra ikasketak egi-tera, Mandaseko Dukearen kalean zegoen «Escuela Normal»ean. «La casa de la prader-
a»ko neskatoaren pare sentitu zela Donos-
tian esan ohi zuen, umore handiz. «Ez nekien
erdara handirik, baina oso onartua izan nin-
tzen», aitortu ohi zuen. Eta Errezil, bere jaiot-
terria, sekula ahaztu ez bazuen ere,
Donostian egin zuen habia betiko. Hori bai,
beti izan zuen gogo-bihotzean gurasoek egun
batez eman zioten agindua: «Aizan, Maria
Dolores, izan hadi orain arte bezain elizkoia
eta zintzoa, eta hitz egin ezan beti eta ahal

denanean gure hizkuntza zahar eta ederra,
euskaldun nortasunaren bereizgarri izan bai-
tun beti. Ahalegindu hadi bihotz osoz gure
euskara gorde, txukundu eta zabaltzen». Eta
aholku hori ipar-orratz bat izan bailitzan izan
zuen gidari bizitza osoan.

Donostian ezkondu zen 1924an, Maria-
nistetan Xabier Zubiriren ikaslaguna izan zen
Eugenio Lasheras donostiarrarekin. Bi seme-
-alaba izan zituzten: alaba Maria Dolores,
Mariaren Lagundiko moja, mundu osoan
zehar lanean ibili ondoren azken urte hauek
Donostian daramatzana; eta semea, Eugenio,
medikua da. Hamalau biloba izan zituen.

Euskara irakasten, antzerkigintzan, itzultzen, irratian, euskara erabil zitekeen leku gehiengintan egin zuen lan Maria Doloresek bizitza osoan zehar. Maria Dolores Agirre emaztea, ama eta amona; emakumea. Garaiko giro abertzalean bizi eta egin zuen lan, eta berak lan horiei meritu berezirik ematen ez zien arren, ongi merezitako aitortzak jaso zituen bai bizirik zegoela, eta baita hil ondoren ere.

Batzuk bederen ekar ditzadan gogora: Donostiako Udalak Hiriaren Zilarrezko Domina ematea erabaki zuen 1979ko aben-



Maria Doloresen aita eta bere senideak.
Ezkerretik eskuinera, zutik: Pablo, Tomás eta Alberto;
eserita: Agustina, Don Gil eta Sor Magdalena



Maria Dolores bere familiarekin Sor Magdalenaren zilarrezko ezteietan. Goian, ezkerretik eskuinera, hirugarrena Jose Ramon anaia. Beheko ilaran, ezkerretik eskuinera Maria Dolores, Pablo, Sor Magdalena, Tomas eta Barrensorta



Maria Dolores eta bere senarra aitona-amonekin eta senideekin: azkeneko ilaran, ezkerretik eskuinera, hirugarren bikotea da

duan, 1980ko San Sebastian egunean entregatu ziotena. EIZIE - Euskal Itzultzaileen Elkar-
teak Ohorezko Bazkide izendatu zuen 1991n
antzerkia euskaratzen egindako lan bikainaga-
tik. Hil ondoren, 1998an, Gipuzkoako Foru

Aldundiak Anton Abbadia Sarian aipamen
berezia eskaini zion. Eta Donostian laster kale
bat izango du Egia auzoan.

Maria Dolores Agirre Donostian hil zen
1997ko uztailaren 26an.



Euskara irakasle

arai haietan ohikoa zen bezala, Maria Dolores sei urtetik hamabira bitartean herriko eskolan ibili zen, baina aitak zeukan dendan laguntzen eta etxean eduki ohi zituzten txerriak zaintzen ere makina bat lan egin zuen, gaztetxoak izan arren. Dendan aitari laguntzen ibilitako urte haietan, artean erosketak diruz ordaindu partez gauza truk saltzen zirela gogoratu ohi zuen Maria Doloresek. Alabaina, sekula ez zen damutu eramandako gaztaroaz, guztiz alderantziz, haurtzaroan etxean egindako lanak izugarritzko oinarria eman ziola esan ohi zuen: «Eskola batek baino gehiago erantsi zidan, Izadia, izan

ere, aparteko irakaslea da. Zer ote da, gero, txikitandik lanean ohitzea».

Baina Maria Doloresek ikasteko zaletasuna oso barnean sartua zeukan txikitandik. Farmazia ikasteko gogo zuen, baina irakasle izateko izugarritzko lehia ere bai, eta herriko eskolan zebilela maistrak beste ikasleak zaintzen uzten omen zuen noizean behin.

Horrela, bada, 1917. urtean Joxe Ramon anaia soldadutzatik etxera itzuli zenean Maria Dolores Donostiara eraman zuen aitak, maistratarako ikas zezan. Oroitzen zen Maria Dolores gazteleraz ia hitzik ere ez zekiela, etxean bazutela, ordea, Kixote xahar bat eta hango zati batzuk buruz ikasiak zituela eta asko lagundu ziola. Bestalde, maistra ikasketak egin zituenean ere baliagarria suertatu zitzaion Cervantes irakurri-

ta izatea, literatura irakaslea sinestu ezinik gertatu omen zitzaion Errezilgoa izan eta Kixote irakurrita zeukala frogatu zionean.

Gaur ezinezkoa badirudi ere, maistra karrera egin zuten lehen emakumeetako bat izan zen Maria Dolores Agirre. Julene Azpeitia, Katalina Elizegi, Elbira Zipitria, Elixabete Maiztegi, Maria Dolores Goia, Julia Fernandez Zabaleta, eta abarrekin.

Irakasle Eskolak egun beti egon direla iruditzen bazaigu ere, esan behar da nahiko berriak direla. Gizonezkoenak XIX. mende erdialdera hasi ziren; emakumezkoenak, berriz, geroxeago. Bizkaian 1901 ean zabaldu zen emakumez-

koentzako magisterio eskola; Gipuzkoan 1865etik 1869ra zabalik egon zena itxi eta handik 30 urtera ireki zen, 1899an hain zuzen. Maria Doloresen belaunaldia maistra karrera Gipuzkoan egiteko aukera izan zuen ia-ia lehena dela esan daiteke.

Ikasketak amaitu bezain laster Antiguoko eskolan hasi zen ikasgela batean maistra lanean. Baina Maria Dolores Agirrek nahiago zuen beste era batera euskararen alde lan egin eta Euskal Izkera ta Iztunde Ikastola zela-kora bildu zen; hasieran ikasle, eta ondoren irakasle bezala, ondoan Toribio Altzaga, Abelino Barriola eta abar zituela.



1917. urtea: Maria Dolores (azkeneko ilaran, bigarrena eskuinetik ezkerrera) bere ikaskideekin Donostiako «Escuela Normal» edo Maistra Eskolan

Maria Dolores Euskal Izkera ta Iztunde Ikastolako irakasle bihurtu baino lehen, ordea, bere etxean hasia zen euskara irakasten. Berak zioenez, ordurako ezkondata zegoela, familiaren ekonomiari laguntzea pentsatu zuen, eta horretarako denda batean iragarki bat jarri omen zuen euskarazko eskolak emateko prest zegoela esanaz. Ordu gutxira ikasle bat zeukala esanaz deitu zioten: atzerriko andre bat zen, diplomatiko baten emaztea, eta ustekabean bizitza osoan iraungo zion lana sortu zitzaion. Eta inguratu era

guztietako ikasleak inguratu zitzaizkion: Antonio Agirre kontsula, Inazio Usandizaga, Karlos Santamaria, Migel Castells notarioa, Orkolaga medikua eta beste hainbat maila eta lanbidetakoak. Bilbotik Donostiara egunero etortzen zitzaion ikasle bat ere izan omen zuen, notarioa bera. Etxean, Euskal Iztunde Eskolan, Ateneoan, Alargunen Kлубean, Emakumeen Kultur Etxean eta abarretan ematen zituen euskarazko klaseak. Batean eta bestean ehunen bat ikasle izaten omen zituen. Baita gerrako eta ondorengo



Maria Dolores Don Toribio Altagarekin



Maria Dolores Elbira Zipitriarekin

urteetan ere beti jarraitu zuen euskara irakasten.

Horrezaz gain ikastaro bereziak ere ematen zituen; esate baterako, 1960ko abuztuan Elbira Zipitria eta Maria Dolores Agirrek elkarrekin ikastaro bat eman zieten andereño eta andereñoгаiei.

«Nire eskoletan euskara eta herri hau maitatzeko ikasgarritasun saiatzen nintzen» esaten zuen beti Maria Doloresek, eta euskara eta herria, uztarketa hori ez zuen eten bere bizitzan. Ez zion euskara irakasteko lanari utzi ia hil zen arte. Bere iloba M^a Jose Lasherasek ongi gogoan du nola, izeba ordurako jubilatu-

ta zegoela, haren etxera joaten zen euskara ikastera: «Bere jarrerak, bere maitasunak, bere ahots gozoak niregan euskara ikasteko irrika piztu zuten. Izeba jubilatuta zegoenean, ate joka joan nintzaion euskara ikasteko nahia nuela adieraziz eta izebari poz handia eman nion egun hartan eta jo ta ke ekin genion lana-ri». Esan behar da ikasle hura egun HABEko irakaslea dela.

Hizkuntzaren goi-mailako ezagutza zuen Maria Doloresek; haren euskara herrikoia zen oso, jatorra eta aberatsa. Jaiotzez erretil-darra izanik, hango baserri batean hazi eta hezia, euskaraz ondo jantzita zegoen. Gaz-



Maria Dolores Faustina Carril eta Elixabete Maiztegi antzerkiko lagunekin

tetan Donostiara etorri zenean gaztelania ikasteko beharra izan zuen, eta gaztelania ikasteko bizi izandako prozesua lagungarria suertatu zitzaion euskararen irakaskuntzarako. Ongi ulertzen zituen ikasleek bigarren hizkuntza bat ikasteko orduan zeuzkaten zailtasunak.

M^a Jose Lasherasen hitzetan, irakasle sortzailea zen oso. Ikasmaterialak ikasleen interesak kontuan edukita sortzen zituen eta euskaraz zeuden dokumentu guztiak, ahozkoak zein idatzizkoak, ikasbide gisa aprobeztatzen zituen. Lehenengoan artean, abestiak, irrati-saioak, bertsolarien emanaldiak eta antzezlanak zeuden. Idatzizkoen artean, berriz, otoitz-liburuak, bertsolarien idatzia eta egunkarian garai hartan astean behin argitaratzen zen euskarazko orria. Eta baita esaera zaharrak, ipuinak, Fernando Amezkettarraren txisteak eta beste hainbat pasadizo modu atsegin eta entretenigarrian kontatzen zizkien Maria Doloresek bere ikasleei. «Nire bizitza osoan herriko hitzun ederrei begira egon naiz, lparragirreraren antzera, zoraturikan, zabal-zabalik begiak», horiek ziren bere hitzak eta hori bere leloa. Txomin Agirreren *Garoa* ere beti ondoan eta gidari izan zuen Maria Doloresek.

Maria Doloresen ikasle izan zen baita ere Juan Antonio Garmendia, hainbeste urtez Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko presidentea izana, zeinak eskoletan erabiltzen zituzten apunteak eta ariketak gordeta bai-

tauzka gaur oraindik altxor bat bailiran. Hor utzi du hil ondoren paper mordoa, euskara irakasteko erabiltzen zituen material eta metodoekin. Baina Maria Doloresen metodo guztien oinarria bakarra zen: ikasleari, entzuleari, irakurleari euskara atsegina, gustagarria eta maitagarria egitea. Hori zen bere sekretua euskarazko klaseetan, antzerkietan eta irratsaioetan. Izan ere, Maria Dolores Agirrek bere hitzetan eta bere ekintzetan erakusten zuen bere bihotz gozoa: gaixoak zaintzerakoan, atzeratuei laguntzerakoan eta euskara-




Maria Dolores, Donostiako Kultura zinegotzia izan zen Gurutz Larrañagarekin eta Maria Luisa Altzagarekin

rentzat lagunak egiterakoan. Harrigarria badirudi ere, Maria Dolores Agirrek eta Elbira Zipitriak, lagun minak izateaz gain, elkarrekin lan ugari egin zuten, esate baterako atzeratuekin ere lanean hasi ziren lehenengoetakoak izan ziren. Beren etxera bezala joaten ziren Maria Doloresen etxera edozein egunetan.

Maria Doloresen ikaslea eta laguna ere izan zen Juan Antonio Garmendia, eta honela dio harreman hura gogoratzean: «Beti deigarria egiten zitzaidan Hirugarren Munduko arazoe-kiko haren sentiberatasuna eta haren kezka Elizarekiko eta gizadiak eta gure herriak jasa-

ten zituzten injustiziekiko. Maria Doloresek gure kultura eta gizartea ohoratu zituen; harremanak adiskidetasunaren bidez goratzen zituen; bere elkarriketa beti irekiarekin eta “bestearen” tokian jartzeko joerarekin komunikazioa errazten zuen [...]».

Nondik zetorkion, baina, Maria Doloresi euskararekiko zaletasuna? Amak bizkaieraz hainbat hitz erakusten omen zizkien eta antza, amak, Resurrecion M^a de Azkue askotan hizketaratua izan behar zuen. Bestetik, Aizarnako erretore izan zen osaba Gil Agirrek ere oso euskaltzalea izan behar zuen, euskarazko lanen batekin sari bat eta guzti irabazia.



Euskal Izkera ta Iztundeko akta

Antzerkigile



San dugu Maria Doloresek maistra ikasketak egin eta lanbide horrekin batera euskara irakasteari ere ekin ziola. Baina horretarako, eta euskararekiko kezka bultzatuta, Donostiako Garibai kalean zegoen Euskal Izkera ta Iztunde Ikastolan apuntatu zen: lauzpabost maisu, Larrialdietan guardian egon ohi ziren medikuak, farmazeutikoren bat eta Kutxako langileren bat elkartzen ziren eskoletan.

Euskal Izkera ta Iztunde Ikastola 1915ean sortu zen Donostian Abelino Barriola zinegotzi jeltzalearen eraginez eta Toribio Alzagaren zuzendaritzapean. Martzelino Soroak 1878an Antzoki

Zaharrean plazaratu zuen *Iriyarena* antzerkiaren arrakastaren ondoren, gero eta indartsuago erne zen donostiarrengan alaitasunezko eta umorezko antzerkizaleatasuna. Pepe Artola, Juan Inazio Uranga, Gregorio Mujika, Abelino Barriola eta Toribio Alzaga dira, besteak beste XIX. mendeko bukaeran eta XX. mendeko hasieran antzerki suspertzailerik handienak.



Euskal Izkera ta Iztundeko diploma



Maria Doloresek, Toribio Altzagaren ikasle eta laguntzaile izanik, beti hitz ederrak baino ez zituen izan bere maisu eta lagunarentzat: «Don Toribio, irakasle bikaina izateko jaioa: argia, eramana haundikoa, saiatua, alaia, etorri haundikoa eta aldarte onekoa, hamaika barre eginarazitakoa, hitz batean esateko, ez zen izatez gizaseme luze horietakoa, baina klasea ematen ari zenean, irmotu eta gizon eta erdi egiten zen».

Horrela, bada, Maria Dolores Toribio Altzagaren ikasle izan zen, baina ikasturte bakar batez, izan ere Donostiako Udalak irakasle lanpostu bat atera baitzuen hain zuzen Maria Dolores ikasle zen eskolarako, eta Don Toribio irakasleak bultzatuta aurkeztu egin zen postura, gizonezko mordoxkarekin batera aurkeztu ere, eta guztien artean bera zen emakume bakarra. «Emakumea izatea, garai haietan, ez zen prezeki gauzak errazten zizkidan meritua» aitortu zuen Maria Doloresek berak Donostiako Udalak zilarrezko domina eman zion egunean. Posturako izena emateko epea ia erabat agortu arte ez zuen Maria Doloresek



Zentsura-baimena antzerki-emanaldietarako

berea eman, hain zuzen emakumea izateagatik baztertua izan zitekeen beldur zelako. Baina ez zuen inolako arazorik izan, guztiz alderantziz, Juan Jose Arrue Larrañaga *Argia* astekariaren zuzendaria ez beste gizonezko guztiak erori baitziren hasieran bertan.

Lau egun iraun zuten oposizioek. Lau egun, eta lau proba gainditu beharrekoak: itzulpen ariketa bat, eta Kixoteren kapitulu bat itzuli behar izan zuten euskarara eta *Geroren* beste bat gaztelaniara. Idazlan bat: «Gogoratzen naiz euskarari buruz idatzi beharra geneukan eta nik idazlana hasi nuen esanaz nekazaritzako lantresnak bezala, hizkuntza ere herdoildu egiten dela erabili ezean, jendeak baserrietatik hirietara emigratzearen ondorioz» gogoratzen zuten Maria Doloresek. Ondoren eskola bat eman behar zuten ustezko ikasle-talde baten aurrean. Eta amaitzeko, Juan Jose Arrue eta biak bakarrik geratzen zirela, Sheakespeareren testu bat errexitatu behar izan zuten, eta paper horretan protagonistak ilea askatuta darama. Maria Doloresek, hori ikusirik, epai-mahaikoei galdetu zien ea ilea askatu beharra zeukan. «Benetako ero batek bezala errexitatu nuen testua» kontatzen zuten oposizioetako pasadizo hura azaltzean. Azterketaren bukaeran Juan Jose Arruek etxera lagundu eta epaimahaiak erabaki aurretik Maria Doloresen balioaz oharturik aitortu omen zion: «Zorionak, zuk irabazi duzu». Epaimahaiak 1932ko uztailaren 2an sinatutako aktan hiru hamarreko jarri ziz-

kion Maria Doloresi oposizio-azterketako emaitzetan. 1933. urteko otsailean ekin zion lanbide berriari.

1936ko gerrak etena ekarri zuen, mutualdi ilun eta luzea, isilaldi gogorra, noski, baita Iztunde Ikastolarentzat ere, eta Maria Dolores Udaletxeko obretako batzordean jarri zuten lanean.

Antzerkiaren harra sartua zuen, ordea, M^a Doloresek ordurako. 1949an, Azpeitiko Nekazari Alkartasunak antolatutako sariketara aurkeztu zen *Aukeraren maukera, azkenian... okerra* obrarekin

Euskal Izkera ta Iztunde Ikastolak 1953. urtean ireki zituen berriro ateak, euskararen kontrako erasoak baretzen hasi bezain laster. Fray Luis de Leonen antzera hitz hauekin hasi zuen Maria Doloresek gerra ondorengo lehen eskola Euskal Iztunde Ikastolan: «Atzo genion bezala..., hemen nauzue berriro, sendo eta irmo euskara eta euskal antzerkia indartu eta zabaltzeko».

Toribio Altzaga, ordea, ez zen ordurako han, 1941. urtean hil baitzen. Horrela, Maria Doloresek handik aurrera Toribiok hasitako bideari jarraitu zion 1973ko ekainean jubilatu zen arte. «Deklamazioan eman nituen lehen pausoak maisu handi horri esker ikasi eta asimilatu nituen; Don Toribiok uneoro bere esperientzia, adiskidetasuna eta artea eskaini zizkidan», esaten zuen Maria Doloresek. Bestalde, M^a Luisa Altzagak, Toribio Altzagaren alabak, aita-

ren eta M^a Doloresen harremanak ederki eza-
gutu zituenak, honela zioen M^a Doloresi
buruz: «Hogeita hamaikan euskararen bultza-
da baten gogoa nabaria zen gure gizartean eta
On Toribiok bakarrik ezin zuen lan hone-
tan[...], orduan sortu zen Euskal Izkera ta
Iztundearen Ikastola. M^a Dolores ikusgarria
izan zen nire aitarentzat, oso azkarra eta argia
zenez, ahalmen handikoa. Pertsona atsegina
eta ausarta, asko balio duen emakumea. Gero
egoera gogorra egokitu zitzaion, baina bera
oso goxoa eta atsegina da [...]».

Toribio eta Maria Dolores, banatu ezinezko bi
izen, gerra aurreko eta gerra ondorengo
Donostian euskarari tinko eusteko lan ugari
egin zuten pertsonak izan ziren biak. Euskal
Izkera ta Iztunde Ikastolak 1965ean berrogei-
ta hamar urte bete zituenean Baserri bertso-
lariak jarri zituen hiru bertso hauek baino
ezer hobeagorik ez bien lana goraipatzeko:

URRE-EZTAIAK (1915-1965)

Oraintxe berrogeitamar urte
gendun berri pozgarria,
euskal-eskola ta iztundea
sortzeko erabakia,
pauso bikain bat ematen asi
zitzaigula Donostia.
Barriola ta Zulaika jaunak
egin zuten eskaria.
Garai aretan ba gendun emen
oso gizon berezia,
aztu ez leiken Alzaga jaunak
talentu aundiz jantzia.

Egiten zaion omenaldi au
ez al zuen merezia?
Gauza gutxi dan, Don Toribio,
egin gentzakeen guzia.

Idazle trebe, maisu argia,
behar degu gaur oroitu.
Lanari lotu zitzaion eta
egundo etzan gelditu.
Antzerki bidez gu euskaldunok
goi mallara jaso gaitu
ta gorago jun nai baldin bada
aren legera errenditu.
Zimendu onak jartzen digunak
ez al du milla meritu?
Gure erria zer dan agertu,
illun daudenak argitu,
Alzagak utzi zigun lan onak
alderdi oiek baditu,
bide zabalak urratu zitun
inork nai badu jarraitu.

Zaude pozkidaz Don Toribio
betiko atsedenetan,
jarraitzaleak badituzu, bai
gure Euskalerrri onetan.
Alako piztu aldi berri bat
dago gure egunetan,
euskera buru jasotzen ari
zaigu Donostian bertan.
Emakume bat badegu emen
txalogarria benetan,
zure tokian exertzen dana
aspalditxoko urtetan.
Maria Dolores Agirre ari da
eten gabeko lanetan.
Euskal Iztunde maitagarria
etzaude esku txarretan.

Euskal Izkera eta Iztunde Ikastolan bi eginkizun zituen, beraz, aurrerantzean Maria Doloresek, alde batetik euskara irakasten jarraitzea eta, bestetik, urtero antzerki emanaldi bat antolatzea, egun hori Santo Tomas eguna izan ohi zen, baina baita San Sebastian egunez ere egiten zuten emanaldirik. Horrela, berriro ikasgelak bete egin ziren eta Antzokiko antzerki-taldea berriz hasi zen lanean. Egileor, Beorlegi, Barriola, Ugartetxea, Etxeberria, Areitio, Aurtena, Bikandi, Rezabal, Ezeiza, Orkolaga, Ezkurra, Arruabarrena, eta denen artean azpimarratzekoa Etxebeste: hauek eta beste batzuk, guztira berrogeita hamarren bat pertsonak osatzen zuten batez ere Gipuzkoan baina baita Euskal Herriko beste puntu batzuetan ere antzerki lan bikainak antzeztu zituen taldea.

Joxemari Etxebeste zen Maria Doloresen makulua antzerki kontuetan, eta hain zuzen errezildarraren jubilazioa eta gero berak jarraitu zuen Euskal Izkera ta Iztundean antzerkiaren arduradun eta Etxebeste izan zen Eusko Jaurlaritzak Antzerti sortu zuenean erakunde honen lehen zuzendaria ere.

Maria Doloresek bihotz eta kemen osoz maite izan zuen antzerkia. Hasieran euskara eta herria elkarrekin lotzen zituela genioen; orain hizkuntzaren eta antzerkiaren arteko lotura ikus dezagun, izan ere antzerkiaren aukera ez zen inondik ere zorizkoa, bere esanetan antzerkia hainbeste maite bazuen, bes-

teak beste Euskal Herriko hizkuntza hitz egiteko aukera ematen ziolako zen, gure kultura, ohitura, mito, ipuin eta ametsen sustraietan sakontzeko. Gure lexiko aberatsa, gure esamoldeak, gure herri-jakituria erabiltzeko. Herria, hizkuntza, antzerkia.

Herriaren komunikazio biderik onena, Maria Doloresen ustez, antzerkia da. Herriak oso ongi ulertzen du antzerkiaren lengoaia, bere metaforen mundua, bere sinboloak, bere isilune eta garrasiak ulertzen ditu. Antzerkiko pertsonaiak erraz pertsonalizatu eta har daitezke erreferentzia-puntu bezala. Erraza da antzerkiko pertsonaiekin sintonizatzea eta erraza haien mezuak jasotzea. Antzerkia bizitza da eta bizitza ulergarria egiten du.

Antzerkiak herria egin egiten du. Bera da herria gorpuzteko modu ludikoa, eta ez dago horretarako era pozgarri eta egiazkoagorik, esaten zuen Maria Doloresek, eta honela jarraitzen zuen: «Gure Iztunde Eskolako antzezleri taldea lagun talde bat izan da urteetan zehar, herriarekin komunikatzeko, herriari gozarazteko prest egon dena». Eta behin gehiagotan euskararen gaia jorratzen zuen berriro ere, esanaz, euskal kulturak funtsezkoena duen hori, herri hizkera –profesionalaren zuhurtasunez eta benetako artistaren arimaz ahoskatua eta antzeztua– bizi ahal izateko, aurrean jarriko ziren oztopo guztiak gainditzeko prest omen zegoen une oro taldea.

[illegible]

ANTZOKI ZARREAN



1989
Nafarroa I

DOME SEBASTIAN JAJAK

19 de Mayo
1991

Acreditación: 6.45 y 7.15 de la tarde

Presentado por: A. T. T. sobre la Asistencia al
FORAL: EITBEN, NAFARROA, Nafarroa, Antzoki
zarrean, puzos de Nafarroa.

ALABANDU: CANTUAK N. egiak eta Agirretx
Nafarroa, Nafarroa, Nafarroa, Nafarroa.

1' "TXALUPAK JABERIK EZ"

2.º: Bertsoariak onak

TEATRO PRINCIPAL

Acreditación de herbolariak

NAKAKETA - REPARTO

1.ª: Antzoki	Antzoki
2.ª: Antzoki	Antzoki
3.ª: Antzoki	Antzoki
4.ª: Antzoki	Antzoki
5.ª: Antzoki	Antzoki
6.ª: Antzoki	Antzoki
7.ª: Antzoki	Antzoki
8.ª: Antzoki	Antzoki
9.ª: Antzoki	Antzoki
10.ª: Antzoki	Antzoki
11.ª: Antzoki	Antzoki
12.ª: Antzoki	Antzoki
13.ª: Antzoki	Antzoki
14.ª: Antzoki	Antzoki
15.ª: Antzoki	Antzoki
16.ª: Antzoki	Antzoki
17.ª: Antzoki	Antzoki
18.ª: Antzoki	Antzoki
19.ª: Antzoki	Antzoki
20.ª: Antzoki	Antzoki
21.ª: Antzoki	Antzoki
22.ª: Antzoki	Antzoki
23.ª: Antzoki	Antzoki
24.ª: Antzoki	Antzoki
25.ª: Antzoki	Antzoki
26.ª: Antzoki	Antzoki
27.ª: Antzoki	Antzoki
28.ª: Antzoki	Antzoki
29.ª: Antzoki	Antzoki
30.ª: Antzoki	Antzoki
31.ª: Antzoki	Antzoki
32.ª: Antzoki	Antzoki
33.ª: Antzoki	Antzoki
34.ª: Antzoki	Antzoki
35.ª: Antzoki	Antzoki
36.ª: Antzoki	Antzoki
37.ª: Antzoki	Antzoki
38.ª: Antzoki	Antzoki
39.ª: Antzoki	Antzoki
40.ª: Antzoki	Antzoki
41.ª: Antzoki	Antzoki
42.ª: Antzoki	Antzoki
43.ª: Antzoki	Antzoki
44.ª: Antzoki	Antzoki
45.ª: Antzoki	Antzoki
46.ª: Antzoki	Antzoki
47.ª: Antzoki	Antzoki
48.ª: Antzoki	Antzoki
49.ª: Antzoki	Antzoki
50.ª: Antzoki	Antzoki
51.ª: Antzoki	Antzoki
52.ª: Antzoki	Antzoki
53.ª: Antzoki	Antzoki
54.ª: Antzoki	Antzoki
55.ª: Antzoki	Antzoki
56.ª: Antzoki	Antzoki
57.ª: Antzoki	Antzoki
58.ª: Antzoki	Antzoki
59.ª: Antzoki	Antzoki
60.ª: Antzoki	Antzoki
61.ª: Antzoki	Antzoki
62.ª: Antzoki	Antzoki
63.ª: Antzoki	Antzoki
64.ª: Antzoki	Antzoki
65.ª: Antzoki	Antzoki
66.ª: Antzoki	Antzoki
67.ª: Antzoki	Antzoki
68.ª: Antzoki	Antzoki
69.ª: Antzoki	Antzoki
70.ª: Antzoki	Antzoki
71.ª: Antzoki	Antzoki
72.ª: Antzoki	Antzoki
73.ª: Antzoki	Antzoki
74.ª: Antzoki	Antzoki
75.ª: Antzoki	Antzoki
76.ª: Antzoki	Antzoki
77.ª: Antzoki	Antzoki
78.ª: Antzoki	Antzoki
79.ª: Antzoki	Antzoki
80.ª: Antzoki	Antzoki
81.ª: Antzoki	Antzoki
82.ª: Antzoki	Antzoki
83.ª: Antzoki	Antzoki
84.ª: Antzoki	Antzoki
85.ª: Antzoki	Antzoki
86.ª: Antzoki	Antzoki
87.ª: Antzoki	Antzoki
88.ª: Antzoki	Antzoki
89.ª: Antzoki	Antzoki
90.ª: Antzoki	Antzoki
91.ª: Antzoki	Antzoki
92.ª: Antzoki	Antzoki
93.ª: Antzoki	Antzoki
94.ª: Antzoki	Antzoki
95.ª: Antzoki	Antzoki
96.ª: Antzoki	Antzoki
97.ª: Antzoki	Antzoki
98.ª: Antzoki	Antzoki
99.ª: Antzoki	Antzoki
100.ª: Antzoki	Antzoki

PROBOS DE LOS LOCALIDADES

1.ª: Antzoki	Antzoki
2.ª: Antzoki	Antzoki
3.ª: Antzoki	Antzoki
4.ª: Antzoki	Antzoki
5.ª: Antzoki	Antzoki
6.ª: Antzoki	Antzoki
7.ª: Antzoki	Antzoki
8.ª: Antzoki	Antzoki
9.ª: Antzoki	Antzoki
10.ª: Antzoki	Antzoki
11.ª: Antzoki	Antzoki
12.ª: Antzoki	Antzoki
13.ª: Antzoki	Antzoki
14.ª: Antzoki	Antzoki
15.ª: Antzoki	Antzoki
16.ª: Antzoki	Antzoki
17.ª: Antzoki	Antzoki
18.ª: Antzoki	Antzoki
19.ª: Antzoki	Antzoki
20.ª: Antzoki	Antzoki
21.ª: Antzoki	Antzoki
22.ª: Antzoki	Antzoki
23.ª: Antzoki	Antzoki
24.ª: Antzoki	Antzoki
25.ª: Antzoki	Antzoki
26.ª: Antzoki	Antzoki
27.ª: Antzoki	Antzoki
28.ª: Antzoki	Antzoki
29.ª: Antzoki	Antzoki

[illegible]

Bestalde, Maria Doloresen hitzetan «salaketa, itxaropen eta elkartasun mezua ekar zezaketen lanak» euskarara itzuli eta egokitu zituen, antzokietara eramanaz. Horrela, antzerkiak herria isiltasunetik atera egin zuen eta herriak bere sentimenduak adierazi ahal izan zituen bere hizkuntzan..., kantuetan..., kultura zaharrean... «Bihotzak eraginda, euskalzaletasunak bultzatuta, gure herria izango nuen mintzagai eta mintza-maisu. Haren bihotz pilpirak entzun, larri-minak jaso eta garaian garaiko kezka eta sentipen guztiak herri-euskaraz



Iparragirre (1971)

antzerkian mamitu. Hortik Toribio Altaga berrantzeztea eta R. Tagore, Garcia Lorca, B. Vallejo eta abar herri-euskaraz jartzea», bere hitz hauek ederki laburtzen dute zein zen bere izpiritua.

Esan bezala, antzerkiak euskaraz sortzen zituztenek nolabait esatearren ohorezko postua zeukaten Iztunde Ikastolan, baina zenbait gai bertakoek ez zituztela tratatzen eta, kanpoko idazleen lanak hartzea erabaki zuen Maria Doloresek. Sarritan Joxemari Etxebestek gomendatuta, beste askotan bere kontura, kanpoko antzerki lanak aukeratu eta euskarara itzultzen eta antzezteko egokitzen joan zen.

Horrenbestez, euskara irakasle eta antzerki zuzendari izateaz gain beste lanbide bat gehitu behar diogu Maria Doloresi: itzultzailearena. Antzerki lanak itzultzeaz gain askotan egin zituen, bestalde, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalerako ere itzulpenak. Bere antzerki itzulpenak ez dira asko, baina beti ere herriaren hizkera oinarritzat hartuta itzulpen bizi bezain ulergarriak egin zituen. Hona hemen bere lanak (lehenengoa, lehenago adierazi dugun bezala, idatzi zuen obra bakarra da):

Aukeraren maukera, azkenian... okerra
(bakarrizketa) - 1949

Lourdesko lorea. H. Gheon - 1958

Amal. Tagore - 1962

Txalupak jaberik ez. A. Casona - 1963

Oriko txoria Orin. F. Lozano - 1965

Txapela bete euri. M.V. Gazzo - 1966

Irugarren itza. A. Casona - 1967

Iturri-agor. F. García Lorca - 1968

Etzan ate joka etorri. J.C. Sotelo - 1968

Iturriko Urretxindorrak. F. García Lorca - 1968

Beste ertza. J.L. Rubio - 1970


Iparragirre. J. Guerreiro Urreisti - 1971

Illumpe goritan. B. Vallejo - 1973

Altzateko jaun. P. Baroja - 1979 (Felipe Barandiaranekin batera itzulia).

Ilargian ere euskaraz. José Luis Muñoyerro. Itzulpena eta marrazkiak Maritxu Urretarekin batera eginak.

Esan bezala, hemengo antzerki-idazleen lanez baliatzen ziren, noski, beraien emanaldietarako, baina taldekoen esanetan zentsura zelako, geratzen ziren apurren lanak oso egokiak iruditzen ez zitzaizkielako, horrela hasi ziren Maria Doloresekin batera kanpokoak aukeratzeko berak itzul zitzen.



Jasotako sarien artean: Antonio Abbadia

Kritikaren goraipamenak eta antzezleen oroimenak

Eta itzulpenak ez ziren nolanahikoak izan, garaiko kritikak aintzat hartzen baditugu. Eta kritiken artean testua eta antzezlanak gorai-patzen dira, noski.

Oriko Txoria Orin 1965eko abenduan antzeztu hurrengo egunean hau zioen kritikak: «Ikusleek txalotu zuten lana, bai egokitzenaren merituegatik, eta baita interpretazioarengatik ere. Azken kasu honetan are txalogarriagoa da, izan ere aktore ez profesionalek ezaguturik sakoneko pertsonaiak interpretatzeak esan nahi duen ahaleginagatik. Urtero Santo Tomas egunez edozein generotako obrarik garrantzitsuenak antzezteko ardura zaila beren gain hartzen badute, alde batetik da euskararen tratamendu eta zabalkundearekiko sentitzen duten maitasun handiagatik eta adierazpen artistikoekiko daukaten sentiberatasun bereziagatik».

Hitz benetan adierazgarriak, eta norbaitek pentsa badezake ere bikainagorik ezin zela idatzi, oker dabil, eta hori horrela dela ikusteko labur beste iritzi batzuk.

Txapela bete euri, 1966an antzeztu ondoren: «Egokitzaleak zailtasun izugarriak gainditu behar izan ditu antzezlan hau euskal antzerkiarekin, eskenatoki, antzeztalde eta abarrekin bateragarri egiteko: baina guztietan airoski aterata da». Edo beste hau: «Erdal antzertia

euskaratu behar den edo ez dabiltzanei, nire iritzia bai sendoa dela esango diet. Ezpai gabe honelako antzezlanek gure antzerkia asko jasoko dute».

Antonio Labayenek *Altzateko Jaun* obra ikusi ondoren idatzi zuena: «Ez dut uste Pio Barojak bere Jaun de Alzate zoragarria idatzi zuenean burutik pasatuko zitzaionik egunen batean osorik bere herriko hizkuntzan jarri eta bere jaioterrian, Donostian antzeztua izango zenik [...]. Itzultzaileek (gogoratu obra hau Felipe Yurramendirekin batera itzuli zuela Maria Doloresek) testuari traiziorik egin gabe, egilearen zenbait aldrebeskeri eta aipamen gozatu egin dituzte».

Noski, izan ziren kontrako iritzia ere. Esate baterako 1972an honako hau zioen Gipuzkoako egunkari batean kritiko batek: «Maria Dolores Agirrek behin eta berriz uste du hizkuntza idatzia herriak hitz egiten duen moduan erabili behar dela. Ona eta benetako da bere jarrera. Baina herriak, edozein gizakik bezala, huts ere egin dezake eta hori gogoratu beharko liokete adituek, Euskaltzaindiakoek [...]».

Herriak hitz egiten duen euskara, horixe zen Maria Doloresek beti defendatu zuena, horregatik ez zuen Euskaltzaindiaren bidea oso begi onez ikusi, eta bai Euskerazaintzarena, azken honetan lan ugari egin zuelarik, besteak beste eskoletan antolatzen ziren idazlan lehiaketa askotan epai-mahaikide izan zen. «Herri eus-



kera» deitzen zenetik hurbilago egongo zen eredu baten alde egin zuen beti eta, nolana, Euskatzaindiak urgazle izendatu zuen 1957an.

Eta Maria Doloresen euskara epaitzeko, ikusleen txaloak entzun besterik ez zen egoten. Horrezaz gain, berak zuzentzen zuen antzerki taldeko kideen iritzia ere entzutekoa da. Rosa Arruabarrena izan zen antzezleetako bat, eta gainera ez edozein, Maria Doloresen lan guztietan emakumezko paperik garrantzitsuenak normalean berak egin ohi baitzuen; bestalde, antzerki taldearen pieza nagusia izan zen Joxemari Etxebeste zenaren alarguna da, eta hau dio Maria Doloresen euskaraz: «Nik haren hizkuntza primeran bilatzen nuen, beste batzuek idatzitako gauza asko kostatzen zitzaizkidan, baina harena oso erraza izaten zen niretzat».

Rosa Arruabarrenak eta baita Maria Doloresekin antzerkian ibili zen Jon Ezeizak ere maitasun handiz gogoratzen dute errezildarra. Urte asko pasatu zituzten elkarrekin eta asko ikasi zuten beragandik. Maria Doloresen hizkuntz kalitatea behin eta berriz goraipatzen dute, hitz berriak sortzeko zuen gaitasuna, ikasteko zuen zaletasuna.

Rosa Arruabarrena Jon Etxaiderekin eta hasi zen antzerkian lanean, baina izugarritzko lotsa ematen omen zion eskenatoki gainera igotzeko. Maria Doloresek eskatu zionean bere antzerki taldean sartzeko, sentitzen zuen beldurra zela eta zera esan omen zion: «Zu

abertzalea baldin bazara, joan beharra daukazu», eta kontxo, hura handia iruditu eta baieztatu ematea besterik ez omen zitzaion geratu. Jon Ezeiza 17 urterekin hasi zen taldean, hain zuzen *Andre Joxepa Tronpeta* egiteko bere amaren bila joan eta amak bere garaia pasatuta zegoela eta ezetza eman zionean; semea aukeratu zuten orduan.

Garai hartan, ordea, ez zegoen gaurko aurreapenik, ez bitartekorik. Euskararen eta Euskal Herriaren alde zerbait egiteko nahiak eraman zituen antzerkira, ez bereziki antzerkizaleak zirelako; musu-truk egin zuten lana, baina bai gustura, eta gainera bikain egin ere. Talde honen maila neurtzeko har daitezkeen erreferentzien artean badago pasadizo bat benetan adierazgarria. Donostiako Udalak igande goizetan *Antzerki Kluba* deitzen zuena antolatzen zuen eta Donostiako talde guztiek zeukaten aukera antzezlanak prestatu eta emateko. Maria Doloresen taldeak joan eta *Amal* prestatu zuen orduan, eta suertea izan zuten: «Amal oso polita da, poesia purua, gero dekorazioak eta oso politak jarri genituen, eta beno, suertea izan genuen» dio Rosak. Egun berean *Club Vasco de Campingek* ere obra bat antzeztu zuen, Tagoreren beste bat hain zuzen, baina haiena oso tristea omen zen, oso grisa. «Eta gurea zen: zelosia batzuk, kolorez erabat blaitua», horrela gogoratzen dute garaiko artistek obra hura. Lehenengo euskarazkoa antzeztu zen eta ondoren gaztelaniazkoa, eta ikusleen artean Larrialdien Etxeko



Altzateko jaun -1979-12-21. Maria Dolores bere antzerki taldearekin eskaini zioten omenaldian

zuzendaria zegoen eta Maria Doloresi deitu omen zion zorionak emateko, esanaz ez zuela uste euskaraz obra hori egin zitekeenik, laudorioak baino ez omen zituzten entzun, eta Maria Dolores oso gustura geratu omen zen.

Lagunarte giro bikaina eduki zuten beti antzerki taldean, abertzale giro ederra, sarritan musu-truk egiteaz gain patrikatik dirua jarri ere egin behar izaten zuten arren. Entsaioak Donostiako Urbieta kalean egiten zituzten hasieran, orain suhiltzaileak dauden tokian, han baitzuen egoitza Euskal Izkerak ta Iztunde Ikastolak. Gero, ordea, lokalak musika eskolarako behar zituztela eta handik bidali egin zituzten, azken kokalekua fruten azokan izan zutelarik. Gogoan dute oraindik nola Urbieta kaleko lokaletan zeuzkaten dekoratu guztiak bota zizkieten. *Andre Joxepa Tronpetarenak* eta beste hainbat dekoratu, esate baterako Mendizabal Donostiako pintore ezagunak

egindakoak, lonaz eta paperez osatuak, bota egin zizkieten beraiei ezer esan gabe: izugarritzko disgustua hartu zuen talde osoak.

Baina pozaldiak ere asko izan zituzten. Madrilen Casonaren *La tercera palabra* estreinatu eta handik gutxira Donostian euskaraz jarri zuen Euskal Izkerak ta Iztundeko taldeak. Casonaren familiako batzuk eta beste ezagun batzuk Donostiara etorri omen ziren justu euskaraz antzeztu zenean, eta familiakoak eta ikustera joan omen ziren. Madrila itzuli eta handik idatzi omen zioten Maria Doloresi zorionak emanaz antzezte lanagatik, denagatik, zoragarria izan zela, eta esanaz ez zeukala Madrilen ikusitakoaren inbidiarik. Maria Dolores eta taldea zoratzen geratu omen ziren.

Zorionak eta eskerrak emateko modu asko ezagutu zituzten Maria Doloresen taldekoek. Esate baterako, Julio Caro Barojak Berako *Itzea* etxera gonbidatu zuen talde osoa afari

bat egitera bere osabaren *Altzateko Jaun* antzetzegatik.

Alderdi onak eta ez hain onak tartekatzen joan gara orain arte, eta antzerkiari eskainitako atal honekin amaitzeko zentsuraren gaia aipatu behar dugu. Garai haietan derrigorrez gainditu beharreko muga zen hori, eta nola ez, Maria Doloresek eta bere taldeak ere behin baino gehiagotan sofritu zuten. Jende aurrean ezer egin aurretik zentsura pasatu behar izaten zen. Obrak gaztelaniaz idazten ziren, ondoren Gobernu Zibilera aurkeztu eta hango baimena jaso ondoren lan horiek euskaraz antzezten ziren. Gogoan du Jon Ezeizak, behin, Irunen antzerki lan bat ematen ari zirela, nola zentsurakoak joan zitzaizkien ikustera eta galdetzeraz ea «eta» hitza zergatik esan behar zen eta gainera hainbeste aldiz eta antzeko gauzak. Maria Dolores beldurrez dardarka joaten omen zen Gobernura zentsura pasa ziezaioten paperak aurkeztera.

Euskal Ikzera ta Iztunde Ikastolak gerra aurretik eta batez ere gerra ondoren izan zuen bizitza eta ospea itzaldtu egin zen, ordea. Maria Dolores 1973an jubilatzen zen, 1981era arte antzerki lanak erabat utzi ez bazituen ere. Bere ondoren Felipe Yurramendik eta Joxemari Etxebestek jarraitu zuten Iztunde Ikastolan, lehenengoa euskarazko eskolen ardurarekin eta bigarrena antzerkiarekin. Geroago, Eusko Jaurlaritzak Antzerti sortu zuen, lehenago esan den bezala, lehen zuzendaria Joxemari Etxebeste izan zuelarik.

Egun, zoritxarrez ez dago Euskal Herrian antzerkiaz bereziki arduratzen den erakunde publiko ez pribaturik.

Eta antzezleen oroimenen barruan, amaitzeko, Joxemari Etxebestek Maria Doloresi jubilatzen ondoren eskaini zioten omenaldian zuzendu zizkion hitz batzuk aipa ditzakegu. Hasteko, elkar ezagutu zutela hogeita hamar urtetik gora zirela gogoratzen zuen Joxemarik, antzerki talderako gazteak behar zirela, eta horrela eraman zutela bera Euskal Iztundera. «Harrezkero zenbat ordu gure euskara kaskarra lantzen. Eramana behar da gero, gu bezalakoekin lana egiteko! Horrenbeste urtetan lan egin arren, izaten du hala ere guk gaizki egindako zerbait, goxo-goxo zuzendu eta irakasteko aukera.» Lan isila zen Maria Doloresek antzerkian egiten zuena. Iluntzean hasi eta gaueko hamarrak edo hamaikak arte aritzen ziren. Eta bere gozoan, ordea, ez omen zuen barkatzen. Behin eta berriz errepika arazten omen zien esaldi bera, poliki samar esatea lortzen zuten arte.

Eta Joxemarik jarraitzen zuen: «Benetan diot, euskara ikasteko, ondo idatzitako antzerkiak buruz ikastea bezalakorik ez dugu ezagutzen. Hizkuntza aberastasuna, ahoskera, esateko modua, denak batera ikasi behar baitira. Eta gainera, Maria Dolores irakaslea. Hori mauka guk izan duguna! Antzerkia, eguneroko irratia, idazlanak, Maria Doloresek nondik atera orduak hori dena egiteko? Gauari lapurtuz».

*M*aria Dolores Agirre hil zenean Bixente Latiegik artikulu batean honela zioen: «Batez ere irratiko hizlari bezala izan zen Maria Dolores Euskalerra osoan ezaguna. Hain baitziren irratorako ego-kiak bere hizkeraren doinua eta bere adimenaren zorroztasuna!».

Halaxe da. Orain arte Maria Dolores Agirrek euskara irakasten eta antzerkian egindako lanak ikusi eta aztertu ditugun arren, esan behar da ez zela horretara mugatu, irratorigintzan 25 urte luzez aritu baitzen 1955ean hasita Basarri, Manuel Oñatibia, Enrike Zurutuza, Joxemari Etxebeste eta beste batzuekin.



Irratien lanean ibilitako taldea. Ezkerretik eskuinera. goian: Jose Luis Rodriguez, Basarri eta Joxemari Etxebeste; behean: Manu Oñatibia, Maria Dolores eta Enrike Zurutuza

La Voz de Guipúzcoa zen irratia, eta bertako arduradun bat Elbira Zipitriaren bila joan omen zen irratorien euskarazko programa batean parte har zezan, baina hark, Maria Doloresen laguna zenez gero, berarekin hitz egiteko esan omen zien. Eta horrela hasi zen errezildarra irratorien.

Programa astelehenetik ostegunera egiten zuten, honetan ere, euskararen irakaskuntzan eta antzerkigintzan bezalaxe Maria Doloresek bai baitzekien erabiltzen ez den hizkuntza kamustu egiten dela: «Egonak eta arretaz erabili ezak herdoiltzen dizkigu burnitresnak; horretxek itxuragabetu ohi ditu mintzairak ere; horrek berak zarpaildu diezaguke gure euskara», esan ohi zuen berak.

Eta euskara edozein arlotarako gai dela baitsi ondoren «sukaldeko txokotik atera eta eramán dezagun tokirik gailurrenetara» aholkatzen zuen, eta aholkua beteaz berak irrátien ere erabiltzen zuen euskara.

Enrike Zurutuzaren esanetan irratsaioak *Baserría* zuen izena eta denbora zail haietan euskarari indarra ematearren egiten zutena, era guztietako kontuak erabiliz: Maria Doloresek ohitura zaharrak, sukaldarítza, era guztietako pasadizoak izaten zituen mintzagai; Enrike Zurutuzak Manuel Oñatibiarekin umorezko elkarrizketa moduko bat egiten zuen, Manuel Don Antonio albaitaria zela eta Enrike, lanbidez albaitaria zena, Joxe Miel baserritarra. Zentsurarekin hemen ere kontuz ibili behar izaten zuten, herriko ohituren kontura, apaizei eta emakumeei adarra jotzen ibiltzen ziren saioan zehar.

Maria Doloresek, emakume jakintsua baitzen bera, bazekien gai guztietan ezin dugula euskara berdina erabili, eta horregatik, bazekien irrátien eta antzerkian egin behar den euskarak ulerterraza, gozoa eta jendeak erabiltzen duenaren antzekoa izan behar duela. Horrela, oso gustura egiten zuten irratsaioa eta are gusturago entzuten zieten hainbat etxetako sukaldeetan. Baina saioa bertan behera utzi behar izan zuten, Maria Doloresek urte askotxo pasa ondoren artean min handiarekin gogoratzen zuenez «euskara zahar hori kendu egin behar da» norbaitek aholkatu omen zielako zuzendarítzakoei.

Era guztietako arazoak gáinditu behar izan zituen Maria Doloresek bere bizítzan zehar. XX. mende hasiera: emakumea, errezildarra, beraz euskaldun ia elebakarra, Donostiara joan, maistra ikasketak egin, euskara landu eta euskara irakatsi, antzerkia euskaraz landu, irrátigintza, gerra, euskararen kontrako arerioa nonahi zorrotza zenean. Eta garaiko testigantzek diotenez eta ezagutu genuenok ongi dakigunez, guztia gozotasun eta maitasun erabatekoarekin egin zuen beti. Maria Doloresen edertasuna eta apaintasuna bere bihotz handian ezin kábitu eta kanporatzen zítzaizkion bertuteak baitziren.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Agirre Lasheras familia*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1871-1 (Lan osoarena)
84-457-1875-4

L.G.: VI-560/02

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística